# ETXAGOK AMA BEGIRA

2012KO MAIATZA - 159. ZKIA



zatoz zu ere

erROCKalde

berria eraikitzera

# AURKIBIDEA

03 Diskofesta
04 Irteera Senda Viva-ra
05 Topalekuko Txapa Txapelketa
06 Kuboko Txantxiku-joko txapelketa
07 Gazte Informazioa
08 erROCKaldeko deialdi publikoa

# AZKEN ORDUKOAK

## GAZTELEKUA FACEBOOK-EN

Garaiek hala agintzen dutelako, beharrezkoa izan ez arren laguntzen duelako, topaleku bat delako, gogoak eman digulako, eta beste hainbat arrazoirengatik, Gaztelekua Facebook-en ere aurkitu ahal izango duzu hemendik aurrera. Bidaliguzu zure lagun eskaera, eta gustura onartuko zaitugu! Bertan jaso ahal izango duzu Gaztelekuko egitarauaren berri, Kontzertuen berri, ... eta noski, zure iritzia ere gustora jasoko dugu.

**www. facebook.com/gaztelekua**


TOPALEKUKO EGITARAUA
MAIATZAK 12, ZAPATUA, 18:00ETAN
DISKOFESTA
SOUND PROYECT -EN ESKUTIK

# TOPALEKUKO EGITARAUA



## IRTEERA

# SENDAVIVA

## MAIATZAK 19, ZAPATUA

Heldu da aurten ere Senda Viva parkera egiten dugun irteera. Maiatzaren 19an izango da, eta irteera Posta Bulegotik egingo da ohi bezala, goizeko 8:15etan. Izena Maiatzaren 11a arte eman ahal izango duzue Gazte Informazio bulegoan. Gogoratu guraso edo arduradunen baimena beharrezkoa izango duzuela joateko, eta baita hamarretakoa, bazkaria eta merienda norberak eraman beharko dituela. Honetaz gain, komenigarria da txanklak eta aldatzeko erropa ere eramatea.





## IZEN EMATE EPEA: MAIATZAREN 11 ARTE

# TOPALEKUKO EGITARAUA

# TXAPA TXAPELKETA

## MAIATZAK 25, OSTIRALA, 18:30ETAN



**IZEN-EMATE DATA: TXAPELETA HASI ARTE**


KUBOKO EGITARAUA
TXANTXIKU-JOKO TXAPELKETA
maiatzak 20, domeka, 17:00etan
izen-emate epea: txapelketa hasi arte

gazte INFORMAZIO PUNTUA

# KRISIAREN AURREAN, GUTXIENEZ INFORMAZIOA

Berriak ez dira onak, eta krisiak bere hortan jarraitzen du “erre ke erre”. Duela urtebeteko *Etxagok Ama Begiran* ere aipatzen genituen hainbat arazo (krisia, langabezia, ikasketak ordaintzeko bekak, ...), eta tamalez, urtebete beranduago gauzak hobetu ez ezik, okertu egin dira nabarmen.

Gazte Informazio Puntutik ezin ditugu makroekonomiarekin lotutako arazo horiek konpondu, baina eguneroko hainbat buruhauste txikiagoren inguruko informazioa eman diezazukegu, eta askotan ez da gutxi.

Dena den, informazioa zuk zeuk bilatzea nahi baduzu, honako web-gune honetan aurkituko duzu guztia:

**www.gipuzkoangazte.info**


MUSIKARIA ZARA?
OÑATIKO LOKAL BERRIAK
ANTOLATZEN ARI GARA
HILEKO LEHENENGO ASTELEHENETAN
ARRATSALDEKO 7RETAN OÑATIKO
KULTUR ETXEAN ELKARTZEN GARA.
LOKAL BATEN BEHARREAN AURKITZEN BAZARA ANIMATU ETA..
ETOR ZAITEZ!
OÑATIN ZENBAT MUSIKARI
EDO TALDE GAUDEN JAKITEKO BATU NAHI GARA
GERO HORRENBESTE LOKAL BANATZEKO ETEOKO EGITURAN.